

## AUR-EZIKETA (18)

### JUANTXO-TXIKI ZURE ANTZEKO

*Umeak zer ikusi a ikasi eta zer entzun a erantzun.* Orain Iau urte dirala, eskolatik etozen gurasoak euren umetxoekin arratsalde. Umetxo bat negarrez etorren bere ama gaztearen ondoren. Onek asarre:

—Zer ostia nai dozu?

Zer nai dozu zure umetxoak ikastea eta zer nai dozu zure umetxoa izatea? Gizon eta emakume egiñak? Mingaiñ onekoak? Egiaren maitaleak? Justiziaren serbitzariak? Maitasunaren zabaltzailleak...?

Zagoz zu bere aurrean gizon oso eta emakume egiña. Zagoz bere aurrean egiaren maitale: guzurra dariola ikusten bazaitu, zelan ikasiko dau egia maitatzen? Oker bazabiltz eta justizitik urrun, nundik ikasiko dau zuzen ibiltzen eta zuzentasuna maitatzen? Gorrotoak erretako biotza agertzen badozu Juantxo-txikiren aurrean, nun ikasiko dau onek maitasuna?

Egia, iñoren eskubideen errespetoa eta begirunean, maitasuna... orreik danak maite dozuz? Benetan eta biotzetik ala ortzetatik kanpora bakarrik?

\* \* \*

*Zer ikusi...* Juantxo-txiki egun osoan zuri begira dago. Zer ikusten dau zu ikustean? Zure antzeko izango da. Zuk zer egin, axe egingo dau berak. On-bidetik ibiltea oker-bidetik ibiltea baiño gaitzagoa da. Neketsuago be bai... Alan be, zu bere aurrean ona bazara, ona izaten laguntzen dautsazu zure aurrari, zure umetxoari; sermoirik ederrena ejemploa da.

Ikas-bide ona erakutsi, ejemplo ona emonez. Orrelan Juantxo-txikik zuk erakutsitako ikas-bidetik, zeure bizitzetik, ikasiko dau ona izaten...

\* \* \*

*Ejemploaren* bidea da biderik luzeena; baiña, onena. Indarkeriak, barriz, bide motzak ditu. Ona izan dedin, Juantxo-txiki indarrez biurtzeak ez dautzu frutu aberatsik emongo. Ez dot uste. Indarraren arrazoia baiño obea dozu arrazoiaren indarra: indarraren orde, arrazoi-bidea erabili. Eta, arrazoi-biderik onena zure bizitza da. Zure ejemploa.

Alan be ejemplo onaren frutuak ez dira sortzen nai ta nai ez. Juantxo-txikik nortasunaren jabegai da eta azken-muturrean bere esku dago ona ala txarra aukeratzea.

\* \* \*

*Norki edo persona geienak* indarkeria gorroto dabe. Geienak esan dogu; baiña zori txarrez badira gogoz indarkeria maite dabenak eta besteen bizkarrean indarra probatzea gogoko jakenak.

"Mal domado, buen domador", esan oi da erderaz: eurak indarra euren bizkarrean jasan ezin dabenak orreixek dira askotan indarkerirako amorratuenak; baiña, beti indarra iñoren bizkarrerako. Nortasuna dabenen artean, animala biurturik ez bada, probetxu gitxi dator indarkeria utsetik. Okerra bera aundiagoa irabazia baiño.

\* \* \*

*Bere buruaren jabe* egin nai badozu Juantxo-txiki, persona bateri dagokion eran ezi bearko dozu zure ejemploaren bidez eta ez indarkeriz. Indar utsez ez dozu sekulan bere biotzik irabaziko. Bere biotzaren giltza berak dau bere eskuetan eta ez dautzu aren aterik irikiko, zuk on merezi ez badozu.

Merezimenduak zure bizitz onaren bidetik aterako dozuz eta ez indarkeriz. Indarraren kontrako griña jaiotzetik dario Juantxo-txikiren biotzean. Ordu artatik bertatik.